



2021-22 IKASTURTEA. LH1/LH2-KO HAURRENTZAKO KIROL IKASTAROAK

(Esta información la pueden obtener en castellano en www.irura.eus, o en la oficina de cultura en horario de 9:00 a 13:00 o de 17:00 a 19:00 o llamando o escribiendo un whatsapp al 688874896)

Udalan denbora daramagu 6-8 urte bitarteko haurrentzako kirol eta heziketa garapenaren esparruan egokiena izan litekeen egitasmoari buruz hausnartzen. Adin horietan ezinbestekoak diren hainbat gauza hartu behar dira kontuan: jolasa, gorputz adierazpena, berdintasuna eta abar. Gizarteak berak daraman garapenari begiratu, gure seme-alabei genero ikuspegia, modu parte-hartzailea edo iritzi kritikoa bezalako terminoak ikasi eta praktikan jarri ahal izateko tresna egokia eskaini nahi diegu.

Orain arte, kirolaren esparruan eskalada, irristaketa eta disziplina anitzeko dantza eskaini izan diegu. Ikastaro horiek ondo gidatuak egon arren eta harrera ona izan arren, ez dakigu beharko luketen funtzio nagusia betetzen ote duten, edo behintzat zalantzan jartzen dugu aukerarik onena hori ote den. LH1 eta LH2ko ikasleak, eskola kirola aurreko fasean aurkitzen dira, eta agian beste perspektiba zabalago batetik erreparatu behar diogu garai honi.

Seguraski, Udalak dituen galdera eta duda horiek, familietan ere edukiko dituzue. Horregatik, zuekin batera hausnarketa konpartitu bat osatzeko ariketa proposatzen dizuegu. Gai honekin zerikusi handia duten beste bi agente diren, ikastetxearekin eta Foru Aldundiarekin batera.

Euren esperientzia eta jakintzak erabaki onena hartzen lagunduko digu. Lehen aipatu dugun errealitateari erantzun nahian, Foru Aldundia Jolashezi izeneko programa bat bultzatzen ari da Gipuzkoako herri guztietan. Jolashezi programaren informazioa jasotzeko aukera izango duzue, Foru Aldundiko Itsaso Nabaskues kirol teknikariaren eskutik.

**Ariketa hau burutzeko bilera telematikoa bat antolatu dugu, ekainak 10ean, arratsaldeko 17:00tan, ondorengo loturan: <https://meet.jit.si/2021/22KirolikastaroakLH1-LH2>
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/eskola-kirola/urteko-programa/jolashezi>**

Informazio hori jaso ostean galdegegia betetzera animatzen zaituztegu, zuen erantzunen arabera planifikatuko baitugu datorren ikasturteko eskaintza.

EUSKARAZ GALDEGEGIA

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdCspE-o0UgPh6Yxx5FpghRLK8F2qcGBQg1PrDYBV9nutErlA/viewform>

GAZTELERAZ GALDEGEGIA

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSck5D6M5LHP3Hz5q0LLY9UzefgyTfzi3peR1aYB-6ElqMltg/viewform>

Informazio gehiago www.irura.eus